



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 7a

37. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—10-23/LEY-00004. Foru-Lege proiektua, Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzkoa (4. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—10-23/PRO-00007. Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (12. or.).

—10-23/PRO-00008. Foru lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (16. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—10-23/MOC-00026. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako toki entitateak premiatzen dira Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioarekin lankidetzan aritu daitezen al bait erremonte-festibal gehien antolatzeko orduan. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (21. or.).

—10-22/MOC-00075. Mozioa. Horren bidez, Nafarroan banku publiko bat sortu beharra dagoela erabakitzen da. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetzea (22. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—10-23/POR-00096. Galdera, ZIU pediatriko berria egungo legegintzaldia amaitu baino lehen funtzionamendu betean egoteko ekintzei eta egutegiari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero egin du (23. or.).

- 10-23/POR-00097. Galdera, etxez etxeko laguntza zerbitzua zabaltzeko aurrekontu-esleipenaren garapenari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (24. or.).
- 10-23/POR-00098. Galdera, Nafarroako 5-CIAN zentroan ematen den arretaren kalitateari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (24. or.).
- 10-23/POR-00099. Galdera, jakiteko nola eraginen dien tipoen etengabeko igoerak Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko zorrari eta interesei. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (25. or.).
- 10-23/POR-00100. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (26. or.).
- 10-23/POR-00101. Galdera, Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexuaskatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordeak egindako lanei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (26. or.).
- 10-23/POR-00102. Galdera, Foru Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako langileek galdutako erosahalmena berreskuratzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (27. or.).
- 10-23/POR-00103. Galdera, PSNk 2021eko urtarrilean prostutuzioaren abolizioari buruz aurkeztutako mozioari eta “Mediador” kasuan salatutako jarduketei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (27. or.).
- 10-23/POR-00104. Galdera, Espainiako Gobernuak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara joaten diren enpresak seinalatzeari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (28. or.).
- 10-23/POR-00105. Galdera, umetoki-lepoaren minbiziaren antzemate goiztiarrerako programa ezartzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (29. or.).
- 10-23/POR-00106. Galdera, Espainiako Gobernuaren gaikuntzaren beharrari buruzkoa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien egungo erregelamendu-proposamena onesteak dakarren langile-gastuen igoera ordaindu ahal izateko. José Suárez Benito jaunak egin du (29. or.).
- 10-23/POR-00107. Galdera, Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren norainokoa zehazteko herritarren parte-hartze prozesuari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (30. or.).
- 10-23/POR-00108. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak “Bai soilik da bai” legea dela-eta duela gutxi eginiko adierazpenei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (30. or.).
- 10-23/POR-00109. Galdera, legegintzaldi honetan gauzatutako finantzaketa jasangarrirako estrategia dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (31. or.).
- 10-23/POR-00110. Galdera, Nafarroan berrikuntzako lehenengo erosketa publikoa ezartzeari begira eginko lanari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (31. or.).
- 10-23/POR-00111. Galdera, Artesiaga aldean, Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (32. or.).
- 10-23/POR-00112. Galdera, asialdirako guneetan sexu-erasoei aurrea hartzeko eta halako egoerak kudeatzeko protokolo bat onesteari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (32. or.).
- 10-23/POR-00113. Galdera, zainketak politika publikoen erdigunean paratzeko beharrari eta mugimendu feministaren erreibindikazioei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (33. or.).
- 10-23/POR-00114. Galdera, legegintzaldia bukatzeaz dela, jakiteko zer balantze egiten den foru gobernuaren eta gobernu zentralaren arteko harremanari buruz. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (34. or.).
- 10-23/POR-00115. Galdera, hipoteken prezioaren igoera orokortuaren ondorioz etxegabetzeen kopuruaren balizko handitzei aurre egiteko hartuko diren neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (34. or.).
- 10-23/POR-00116. Galdera, Nafarroara iritsi diren Europako funtsei eta horiek betetzeko erritmoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (35. or.).
- 10-23/POR-00117. Galdera, foru erkidegoko nahiz Espainiako gainontzeko erkidegoetako eskuina Nafarroaz egiten ari den erabilera politikoari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (35. or.).
- 10-23/POR-00088. Galdera, etxebizitza babestuko sustapen geldiarazi edo atzeratuei buruzkoa. Galdera erretiratzea (36. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—10-21/PON-00003. Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren. Ponentziaren lanak bukatzeko epea luza-tzea (37. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **10-23/LEY-00004. Foru-Lege proiektua, Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2023ko martxoaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektua hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Nafarroako Ingurumen Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektua**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroari dagokio ingurumenaren arloko legeak garatzea eta betearaztea, halaxe xedatzen baitu 57. artikuluko c) apartatuan Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak.

Arau hori oinarri hartuta, eta Nafarroako herritarrek ingurumena babesteari buruz zuten kezka

gero eta handiagoari erantzuteko asmoz, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ingurumen Kontseilua sortu zuen 1993. urtean. Kontseilu hori eratu zen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legean xedatutakoari jarraituta, eta atxiki zitzaion orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Departamentuari.

Hasieran, ingurumen-kudeaketa errazteko eta hobetzeko sortu zen kontseilua. Garapen jasangarriaren bilaketan murgildu zen, eta hartan parte hartu zuten bai ikerketaren, kirolaren eta natura babestu eta aztertzearen arloetako erakunderik nabarmenenek, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beraren teknikari batzuek ere.

Espainiako Konstituzion ezarritakoaren arabera, ingurumena eskubide bat da, herritar guztiek dute hura behar bezala baliatzea, eta, halaber, pertsona guztiek dute, botere publikoekin harmonian, ingurumena zaintzeko eta babesteko betebeharra. 1998ko ekainaren 25ean, eta eskubide hori berme handiagoz betetze aldera, ingurumen arloko hitzarmen bat sinatu zen Aarhus-en, honako hauei helduta: informazioa eskuratzea, jendearen parte-hartzea erabakiak hartzeko orduan eta justiziara jotzea. Horri dagokionez, hitzarmenean aldarrikatu zen ezen ingurumen egokirako eskubide hori baliatzeko moduan egoteko, eta hura kontserbatzeko eta errespetatzeko betebeharra betetzeko, herritarrek ingurumen informazio garrantzitsua eskuratu behar dutela, eta horrek legitimatu egingen dituela ingurumenaren arloko erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko.

Autonomia-erkidegoan, Nafarroako araudiak dagoeneko jasotzen du, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legean, herritarrek badutela eskubidea benetan eta eraginkortasunez parte hartzeko erabakiak hartzeko orduan, ingurumenean esku hartzeko planetan eta programetan, alde zuzenetik eta kontsulta-izaeraz egindako parte-hartze prozesu baten bidez.

Kontuan hartuta zer helburu ezarri ziren Konstituzioan eta aipatutako Aarhusko Hitzarmenean – Nafarroako beste arau batzuetan jaso da hitzarmen horretan ezarritakoa– zenbait aldaketa eta egokitzapen egin beharra dago Nafarroako Ingurumen Kontseilua eratzeko arauan. Izan ere, ahaztu gabe gero eta handiagoa dela ingurumena babestearen inguruko kezka, baita ingurumenak garapen sozialean eta ekonomikoan duen eragina ere, parte-hartze irekiago eta zuzenago bat bideratzeko baliabide eta tresna berriak sartu beharra dago, egungo gizarteak berezko dituenak, hizpide dugun organo tekniko eta aditua, hasiera batean izaera hori baitzuen, egiazko parte-hartze foro bihur dadin, zeinean piztuko baita hainbat alderdiren arteko eztabaida, eta islaturik egonen baitira pertsona eta talde guztien interesak.

Horrela, bada, beharrezkotzat jo da egun kontseilua osatzen duten entitateez gain beste erakunde batzuek ere tokia izan dezatela hartan, adibidez: Nafarroako Parlamentuan dauden parlamentu-taldeak, FORESNA-ZURGAIA basojabeen elkarteak, ADEMAN zuraren arloko enpresaburuen Nafarroako elkarteak, Landa Garapenerako Plana aplikatzeko toki ekintzako taldeak, elkargo profesionalak, Nafarroako Gazteriarren Kontseilua, Nafarroako Adinekoen Kontseilua, Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera Berdintasuna Sustatzeko Kontseilua, eta Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera. Erakunde horietako bakoitzak pertsona bat izendatu behar du Nafarroako Ingurumen Kontseiluan haien ordezkari izateko, eta, horrela, kontseilu hori kide anitzeko organo bat bezala eratu da, zeinetan ordezkaturik egonen baitira bai gizarteak baita ingurumenaren babesean esku hartzen duten eragileak ere.

Gainera, gizartearen bilakaeraren eraginez, eta bete dadin Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen lege-agindua, beharrezkoa da arau honetan genero-berdintasuna txertatzea, eta hala xe egin da 5. artikuluan, zeinetan ezarri baita oreka bermatuko dela kontseiluko kideetan.

Aurrekoarekin bat, Nafarroako Ingurumen Kontseilua izanen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza, kontsulta eta aholkularitzako kide anitzeko organo gorena ingurumen arloan.

Horregatik, beharrezkotzat jo da, halaber, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren hegalpean sartzeko gaur egun ingurumenaren arloan dauden aholku-batzordeak; zehazki, honako hauek: Arrantzako Aholku Batzordea, Ehizako Aholku Batzordea eta Nafarroako Basogintzako Aholku Kon-

tseilua. Gainera, sektore-eremu guztiak aholku-batzorde batean isla daitezten, honako hauek sortzea ezartzen du foru legeak: Biodibertsitatearen Aholku Batzordea, Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordea eta Klima Aldaketaren Aholku Batzordea (Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordetzat hartzen da Hondakinen Planaren Jarraipen Batzordea, zeina ezarri baitzen Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 13. artikuluan; Klima Aldaketaren Aholku Batzordetzat, berriz, Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua deritzona, zeina ezarri baitzuen 8. artikuluan Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak).

Horrez gain, proposatzen da honako hauek indarrak gabe utz daitezten: 1/1993 Foru Legea, otsailaren 17koa, Nafarroako Ingurumen Kontseilua sortzeari buruzkoa; 488/1995 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Nafarroako Uraren Kontseiluari buruzkoa; 138/2001 Foru Dekretua, ekainaren 4koa, Ingurumen Hezkuntza eta Komunikazioa Garatzeko Departamentuarterako Batzorde Teknikoa eratzen duena, eta 120/2001 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Nafarroako Ingurumen Hezkuntzaren Batzorde Aholku-emailea eratzten duena. Adierazi behar da, halaber, ez dagoela inolako dokumentaziorik organo horiek noizbait eratu edo bildu direla egiaztatzen duenik. Beraz, egokitzat jotzen da bi foru dekretuak indargabetzea, Nafarroako Ingurumen Kontseilua izendatu ahal izateko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ingurumen-arloko organo aholku-emaile eta goren.

Horrela, bada, Nafarroako Ingurumen Kontseilua osatzen dute foru legearen 5. artikuluan izendatutako pertsonak eta batzorde aholku-emaileetako kideak.

Aurrekoan oinarrituta, foru legeak ezartzen du ezen Nafarroako Ingurumen Kontseiluak osoko bilkuraren eta aholku-batzordeen bitartez beteko dituela esleituta dituen eginkizunak. Osoko bilkura da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren erabaki-organoren gorenaren, eta honako hauek osatzen dute: burua, buruordeak eta idazkariak lagunduta; Foru Komunitateko Administrazioa ordezkatzeko kideak; erakunde eta elkarteetako kideak, eta aholku-batzorde bakoitzak kontseilukide aholkulari gisa izendatutako pertsonak. Aukera berri bat jaso da: hala eskatzen duen oro entzule gisa joan ahal izanen da osoko bilkuraren bileretara.

Labur esanda, foru legearen xedea da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea. Hiru kapitulutan

egituratu da: I. kapitulua (xedapen orokorrak), II. kapitulua (osaera) eta III. kapitulua (antolaketa eta funtzionamendua), eta badu xedapen gehigarri bat, bi xedapen iragankor, xedapen indargabe-tzaile bat eta bi azken xedapen.

Foru lege hau prestatzeko prozesuan, Nafarroako Ingurumen Kontseiluak hainbat eztabaida-saio egin ditu. Saio horietan, egun kontseilu horretan dauden elkarteek eta erakundeek zenbait iradokizun eta ekarpen egin dituzte, zeinak, hein handi batean, foru lege honi gehitu baitzaizkio.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

### 2. artikulua. Izaera juridikoa.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseilua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren partaidetza, kontsulta eta aholkularitzako kide anitzeko organoa ingurumen arloan.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseilua ingurumen arloko eskumenak dituen departamentuari atxikiko zaio, eta departamentu horrek emanen dizkio behar bezala funtzionatzeko behar dituen baliabide materialak eta giza baliabideak.

### 3. artikulua. Araubide juridikoa.

Nafarroako Ingurumen Kontseilua foru lege honetan xedatutakoaren arabera arautuko da, bai eta martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean kide anitzeko organoei buruz xedatutakoari jarraituta ere (11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa).

### 4. artikulua. Eginkizunak.

Honako hauek dira Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari ingurumen arloan aholku ematea.

b) Honako hauen alde dagoen edo ez dagoen adieraztea, nahitaez:

b.1. Ingurumenaren arloko lege-aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak.

b.2. Ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuak sustatzen dituen planak eta programa estrategikoak.

b.3. Ingurumenaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren aurrekontuen aurreproiektua.

c) Ingurumenaren arloan azterlanak eta txostenak egitea eta gomendioak helaraztea, bere ekimenez edo Foru Komunitateko Administrazioak eskatuta.

## II. KAPITULUA Osaera

### 5. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseilua honako pertsona hauek osatuko dute:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari hauek:

a.1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren titularra.

a.2. Ingurumen arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularra.

a.3. Ingurumenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko zerbitzaburuak.

a.4. Ordezkarri bat, gai hauetan eskumena duten zuzendaritza nagusi bakoitzetik: landa-garapena, nekazaritza eta abeltzaintza, industria, energia, garraioak, turismoa, toki-administrazioa, herri-lanak, babes zibila eta lurralde-antolamendua.

b) Hainbat erakunde eta elkarteren ordezkariak:

b.1. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioiko ordezkari bat (hautapen bidezko kargua).

b.2. Ordezkarri bat Nafarroan dauden bi unibertsitateetako bakoitzetik (ingurumen arloan adituak).

b.3. Lau ordezkari, Nafarroan bazkide gehien dituzten erakunde ekologistetatik.

b.4. Nafarroako Mendi Federazioaren ordezkari bat.

b.5. Nafarroako Ehiza Federazioaren ordezkari bat.

b.6. Nafarroako Arrantza Federazioaren ordezkari bat.

b.7. Nafarroako Ehiztarien Elkarteko ordezkari bat.

b.8. Ordezkarri bat Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkari bat duten erakunde sindikal bakoitzeko.



b.9. Ordezkaritza bat Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten enpresaburuen elkarte bakoitzeko.

b.10. Ordezkaritza bat Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten nekazaritza- eta abeltzaintza-erakundeetako bakoitzeko.

b.11. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duen nekazaritzako elikagaien kooperatiben elkarte ordezkaritza bat.

b.12. Ordezkaritza bat Nafarroako Parlamentuan dauden talde parlamentario bakoitzeko.

b.13. FORESNA-ZURGAIA baso-jabeen elkar-tearen ordezkaritza bat.

b.14. ADEMAN Nafarroako zuraren arloko enpresaburuen elkarte ordezkaritza bat.

b.15. Ordezkaritza bat Nafarroan legez eraturako kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte arteko ordezkaritza handiena duenaren izenean.

b.16. Ordezkaritza bat Landa Garapenerako Plana aplikatzeko tokiko ekintza talde bakoitzeko.

b.17. Lanbide elkargoen hiru ordezkaritza, zeinak proposatuko baititu ingurumen arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko titularrak.

b.18. Kide bat, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak proposatuta.

b.19. Kide bat, Nafarroako Adinekoen Kontseiluak proposatuta.

b.20. Kide bat, Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera Berdintasuna Sustatzeko Kontseiluak proposatuta.

b.21. Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak proposatutako kide bat.

c) Aholku-batzordeetako kideak.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa bermatuko du Nafarroako Ingurumen Kontseiluko titularrak izendatzeko orduan, bat etorrita Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoarekin. Horretarako, titularrak eta ordezkoak proposatzean, ahalegina egingen da emakumeen eta gizonen arteko oreka errespetatzeko.

**6. artikulua.** Kontseiluko burua.

1. Ingurumenaren arloko eskumena duen departamentuaren titularrak izanen da kontseiluko burua.

2. Kontseiluko buruak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 21. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

3. Kargua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan, kontseiluko buruaren ordez buruordea arituko da.

**7. artikulua.** Buruordea.

1. Ingurumen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularrak izanen da buruordea.

2. Kontseiluburuak edo osoko bilkurak esleitzen dizkion eginkizunak beteko ditu buruordeak, kontseiluak kudeaketa, antolaketa eta funtzionamendu ona izan ditzan.

3. Buruorde kargua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan, pertsona bat izendatuko da, ingurumen arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiko zerbitzuetako titularraren artean, haren ordez aritu dadin.

**8. artikulua.** Idazkaritza.

1. Idazkaritza egokituko zaio ingurumenaren araubide juridikoaren atalaren edo zerbitzuaren titularrari.

2. Idazkariak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 22. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen ditu.

3. Idazkari kargua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan, haren ordez arituko da Ingurumenaren Araubide Juridikoaren Atalean administrazio publikoko teknikari (arlo juridikoa) lanpostua betetzen duenak.

**9. artikulua.** Kontseilukideak.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kide izanen dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkaritza izendatutako pertsonak –burua, buruordea eta idazkaria bazter–.

b) Erakundeen eta elkarten ordezkaritza izendatutako pertsonak.

c) Aholku-batzorde bakoitzak kontseilukide aholkulari gisa izendatutako pertsonak.

2. Kontseilukideek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritako eginkizunak izanen dituzte.

3. Zenbat kide titular diren, beste hainbeste ordezkoko kide izendatuko dira, ordezkapenak egin ahal izateko kargua hutsik dagoenean, titularrak kanpoan edo eri dagoenean edo justifikatutako gainerako kasuetan.

**10. artikulua.** Kontseilukideak hautatzea eta izendatzea.

1. Kontseilukide titularrak eta ordezkokoak hautatzeko, idazki bat igorriko zaio idazkaritzari, eta hark kontseiluko buruari helaraziko dio, izenda ditzan.

2. Erakunde edo elkarte bakoitzak hautatuko ditu bere aldeko kontseilukideak.

Baldin lau erakunde ekologistetako batek ez badu pertsona bat hautatzen Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kide iraukorkor izan dadin, edo kide izateari uko egiten badiu, galdetuko zaio Nafarroan bazkide gehien dituen hurrengo erakunde ekologistari ea kontseiluko kide izan nahi duen, eta baiezkoa ematen badu, ordezkaria hautatzeko eskatuko zaio. Horrela egingen da hurrenez hurren, harik eta erakunde ekologisten lau ordezkariak hautatu arte.

3. Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kideak izendatuko dira ingurumen arloan eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez.

**11. artikulua.** Iraupena.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseilua lau urtean behin berrituko da.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluak jardunean jarraituko du harik eta hura aurrerantzean osatuko duten pertsonak izendatu arte, ingurumen arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez.

**12. artikulua.** Kide izateari uztea.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseiluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari diren pertsonak beren kargu publikoak betetzeari uzten diotenean utziko diote kontseiluko kide izateari.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kide izendatu diren gainerako pertsonak kide izateari utziko diote honako arrazoi hauetako bat artean denean:

- a) Izendapen aldia bukatzea.
- b) Hautatu zituzten erakunde edo elkarteek proposatzea.
- c) Berariaz uko egitea.
- d) Desgaikuntza edo ezgaitze judiziala, edo heriotza.

3. Behar baino lehen gertatzen diren hutsuneak aurreko artikuluan ezarri bezala beteko dira. Kontseiluko kide berriaren izendapen aldia bukatuko da Nafarroako Ingurumen Kontseilua berritzen denean, non eta ez den gertatzen aurreko apartatuan ezarritako egoeretako bat.

### III. KAPITULUA

#### Antolaketa eta funtzionamendua.

##### 1. atala Antolaketa

**13. artikulua.** Organoak.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluak honako organo hauen bidez beteko ditu esleitura dituen eginkizunak:

- a) Osoko bilkura.
- b) Aholku-batzordeak.

**14. artikulua.** Osoko bilkura.

1. Osoko bilkura da Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren erabaki-organo gorena.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osoko bilkuran honako hauek daude: burua, buruordeak eta idazkariak lagunduta; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldeko kontseilukideak; erakunde eta elkarteetako kontseilukideak, eta kontseilukide aholkulari bat aholku-batzorde bakoitzeko.

3. Aholku-batzorde bakoitzak pertsona bat hautatuko du, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioakoak ez diren pertsonen artean, bere ordezkari izan dadin osoko bilkuran.

4. Ondoko hauek dira osoko bilkuraren eginkizunak:

- a) Foru lege honen 4.b) artikuluan ezarritako gaiei buruz iritzia ematea.
- b) Ingurumenaren arloan eskumenak dituen departamentuak, ingurumen arloan eragin edo garrantzi handia dutela iritzita, osoko bilkurari helarazten dizkion gaiei heltzea.
- c) Aholku-batzorde batek osoko bilkuran eztabaidatzeko proposatzen duen edozein gairi heltzea.



**15. artikulua.** Aholku-batzordeak.

1. Hauek dira Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren aholku-batzordeak:

- a) Basogintzako Aholku Batzordea.
- b) Ehizako Aholku Batzordea.
- c) Arrantzako Aholku Batzordea.
- d) Biodibertsitatearen Aholku Batzordea.
- e) Ekonomia Zirkularren Aholku Batzordea.
- f) Klima Aldaketaren Aholku Batzordea.

2. Aholku-batzordeen sorrera, osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

3. Aholku-batzordeek dute proposamenak egiteko eskumena, administrazio arloko erabakiak hartzeko oinarri hartuko diren nahitaezko txostenak egiteko eskumena, baita jarraipen eta kontrol eskumena ere. Beraz, informazioa jasoko dute eta eztabaidatuko dute, zeinek bere esparru espezifikoko arauak buruz (foru legeen aurreproiektuak, foru dekretuen proposamenak, eta beste) bai eta esparru espezifikoko horretako estrategiei edo planei buruz ere.

**2. atala****Osoko bilkuraren eta aholku-batzordeen funtzionamendua****16. artikulua.** Osoko bilkurak.

Osoko bilkurak urtean behin eginen du, gutxienez ere, bilera arrunta. Era berean, bilera bereziak egin ahal izanen ditu buruak erabakitzen duenean edo kontseilukideen herenak, gutxienez, hala eskatzen dionean, idatziz, kontseiluko buruari.

**17. artikulua.** Osoko bilkurako bileretarako deia.

1. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osoko bilkuretarako deialdiak eginen dira, gutxienez ere, bilkura egiteko aurreikusitako eguna baino hama-bost egun natural lehenago. Salbuespenez, epe hori laburtzen ahalko da, buruak erabakitako presako arrazoiak tarteko direnean.

2. Ingurumenaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren aurrekontu-aurreproiektuari buruzko bilkuraren deialdia eginen da bat etorrita ekonomiaren eta ogasunaren arloan eskumena duen departamentuak aurrekontuak prestatzeari dagokionez onetsi dituen jarraibide ekonomiko eta teknikoekin.

3. Deialdia bitarteko elektronikoaren bidez eginen da, eta bertan adieraziko dira gai-zerrenda, saioa zer baldintzatan eginen den eta, hala bada, gokia, konexio-sistema. Gainera, ahal denean, eztabaidatzeko beharrezkoa den dokumentazioa igorriko da.

**18. artikulua.** Osoko bilkura eratzea.

1. Osoko bilkura lehen deialdian eta balio osoz eratzeko, beharrezkoa izanen da bertan egon daitezela burua eta idazkaria edo haien ordezkioak, hala badagokio, eta osoko bilkura osatzen duten kideen erdiak, gutxienez ere.

Bigarren deialdian ez da bertaratuen gutxienerako kopururik exijituko, baina beharrezkoa izanen da bertan izan daitezela burua eta idazkaria, edo, hala badagokio, haien ordezkioak.

2. Saioak aurrez aurre edo urrutitik egin ahal izanen dira, eskura dauden tresna teknologikoak baliatuta.

**19. artikulua.** Adituak osoko bilkurara joatea.

1. Osoko bilkuretan parte hartu ahal izanen dute, buruak proposatuta edo kideek berariaz eskatuta, bilkuran aztertu beharrezko gaien inguruan esperientzia edo ezagutza kualifikatua duten pertsonak.

2. Aditua bertaratzeko eskatzen denean, arrazoiak eta justifikazioa eman beharko dira.

3. Eskara idazkariari bidaliko zaio, bilkura baino bost egun baliodun lehenago gutxienez ere, eta buruak baloratuko du. Hark erabakiko du egokia den ala ez proposatutako pertsona osoko bilkuran egon dadin. Eskara egin duenari jakinaraziko zaio, berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez ere, bere eskaera onartu den ala ez.

**20. artikulua.** Osoko bilkuran erabakiak hartzea.

1. Ezin izanen da eztabaidatu gai-zerrendan ageri ez den gairik.

2. Kideek proposatutako gaiak ere sartu ahal izanen dira gai-zerrendan, baldin osoko bilkura egin baino bost egun natural lehenago jakinarazten badute. Proposamena egokia den edo ez baloratzeko, foru lege honetan osoko bilkuraren funtzioei buruz xedatutakoa aplikatuko da. Proposamena zer gairi buruzkoa den, dagokion aholku-batzorde sektorialari birbidali ahal izanen zaio, edo, bestela ere, proposamena egin duenari adieraziko zaio zein den bere proposamena aurkezteko bide egokia.

3. Erabakiak hartuko dira osoko bilkuran dauden Nafarroako Ingurumen Kontseiluko kideen gehiengo soilez.

4. Foru lege honen 4. artikuluan aipatzen den nahitaezko erabakia bilkura-aktan jasoko da, eta idazkariak ziurtagiri bat emanen du, zeinetan adieraziko baita kontseilua alde dagoen ala ez, aztertutako gaiarekin.

5. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren osoko bilkuraren eztabaiden emaitzak ez dira inola ere lotesleak izanen, baina kontuan hartu beharko dira ingurumen-politikak eta ingurumena babesteko araudia definitzerakoan.

#### **21. artikulua.** Osoko bilkuraren aktak.

1. Bilera bakoitzaren akta egingen da, eta, hartan, agertuko da nor bertaratu den, zein izan den gai-zerrenda, noiz eta non egin den, deliberazioko punturik garrantzitsuenak, bozketa modua eta emaitza, eta hartutako erabakien edukia.

2. Buruak eta idazkariak sinatuko dituzte aktak, zeinak onetsiko baitira bilera horretan bertan edo hurrengoan.

#### **22. artikulua.** Osoko bilkuretara libreki sartzea.

Eskatzen duen edonor joan daiteke osoko bilkuretara, entzule gisa.

#### **23. artikulua.** Barne-funtzionamendua.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluak bere barne-funtzionamendurako beharrezkoak diren arauak edo akordioak onetsi ahal izanen ditu.

**24. artikulua.** Aholku-batzordeen funtzionamendua.

1. Batzorde bakoitza arautzen duen arauan ezarritakoaren arabera eratu, antolatu eta jardungo dute Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren aholku-batzordeek.

2. Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren aholku-batzordeen eztabaiden emaitzak ez dira inola ere lotesleak izanen, baina kontuan hartu beharko dira ingurumen arloko politikak eta ingurumena babesteko arauak zehazteko orduan, zeinenak bere sektore-eremuan.

### **3. atala**

#### **Publikotasuna eta urteko memoria**

#### **25. artikulua.** Akten publikotasuna.

Osoko bilkuraren eta aholku-batzordeen aktak, onetsi ondoren, ingurumenaren arloan eskumena duen departamentuaren webgunean argitaratuko dira.

#### **26. artikulua.** Urteko memoria.

Idazkariak, urtero, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren jardueren memoria egingen du, bai osoko bilkurei buruz, bai aholku-batzordeei buruz.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Ingurumen Kontseiluak kide anitzeko beste organo batzuetan izanen dituen ordezkariak hautatzea

Kontseilua berritzeko saioan hautatuko dira Nafarroako Ingurumen Kontseiluak kide anitzeko beste organo batzuetan izanen dituen ordezkariak.

**Lehen xedapen iragankorra.** Kontseiluaren eraketa.

Nafarroako Ingurumen Kontseilua foru lege honetan ezarritakoaren arabera eratu arte, gaur egun hura osatzen duten pertsonak osatuko dute, baina foru lege honetan xedatutakoari jarraituko dio.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Lehendik dauden kontseiluak eta aholku-batzordeak.

Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren mendeko aholku-batzordeen osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen dituen arauzko xedapena onesten ez den bitartean, honako hau bete beharko da:

a) Basogintzako Aholku Batzordea: halakotzat arituko da Nafarroako Basogintzako Aholku Kontseilua, bat etorrira Nafarroako Basogintzako Aholku Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ekainaren 23ko 57/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin.

b) Ehizako Aholku Batzordea: haren osaera eta eginkizunak maiatzaren 3ko 144/1993 Foru Dekretuan ezarritako horiek izanen dira.

c) Arrantzako Aholku Batzordea: haren osaera eta eginkizunak maiatzaren 3ko 143/1993 Foru Dekretuan ezarritako horiek izanen dira.

d) Ekonomia Zirkularraren Aholku Batzordea: halakotzat arituko da Hondakinen Planaren jarraitpen batzordea, zeina ezarri baitzen Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 13. artikuluan.

e) Klima Aldaketaren Aholku Batzordea: halakotzat arituko da Klima-aldaketaren eta Energia-trantsizioaren arloko Politikarako Gizarte Kontseilua deritzona, zeina ezarri baitzen Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 8. artikuluan.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, ondoko hauek:

– 1/1993 Foru Legea, otsailaren 17koa, Nafarroako Ingurumen arloko Kontseilua sortzekoa.

– 488/1995 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Nafarroako Uraren Kontseiluarena.

– 138/2001 Foru Dekretua, ekainaren 4koa, Ingurumen Hezkuntza eta Komunikazioa Garatzeko Departamentuarterko Batzorde Teknikoa eratzen duena.

– 120/2001 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa, Nafarroako Ingurumen Hezkuntzaren Batzorde Aholku-emailea eratzen duena.

**Azken xedapenetako lehena.** Erregelamenduzko garapena.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta ingurumen arloan eskumena duen departamentuko titularrari eman ditzaten foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**10-23/PRO-00007. Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarrekin foru lege proposamen bat aurkeztu dute, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa****ZIOEN AZALPENA**

COVID-19aren pandemia globalak osasun-sistemen ahuleziak agerrarazi ditu gure Foru Komunitatean, gainerako autonomia-erkidegoetan, Europan eta nazioartean. Oso bereziki, oinarritzko osasun-laguntzan. Ikaskizunik garrantzitsuenetariko bat da osasun-sistemak indartu beharra dagoela; batez ere, osasun-zerbitzu publikoak. Zerbitzu horiek giltzarri dira pertsonen osasuna sustatu, artatu, zaindu eta leheneratzeko, bai eta prebentzio-lanerako ere. Erabateko lehenetsuntzat daukate herritarrek, eta funtsezkoa da gure gizartearen garapena jasangarria eta koheziozkoa izan dadin. Bidezko da halaber ohartaraztea ezen osasungintzako profesionalek, gainerako oinarritzko zerbitzuetako langileekin batera, burubelarri jardun dutela gure Komunitateko pertsonentzako zerbitzu publikoan eta babes-lanean.

Horrenbestez, arau honek xede du geratzen den legegintzaldi-zati laburrean gure osasun-zerbitzua, Osasunbidea, indartu eta hobetzea, medikuen kolektiboaren lanbide- eta ordainsari-baldintzak hobetuz, bai eta osasungintzako beste estamentu eta profesional batzuenak ere. Halaber, neurri-multzo bat ezartzen da, bideratuta dagoena oinarritzko laguntzaren egoera berehala hobetzera, partzialki bederen, Oinarritzko Laguntzarako Ekintza Planaren ildo beretik. Aipaturiko neurriak direla-eta kasuko eztabaida, kontsulta eta negoziazioa egin dira kolektibo eta lanbide-nahiz gizarte-erakunde frankorekin, bai eta eragile politiko eta sindikalekin ere.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-  
tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege  
Organikoaren 49.1 b) artikulua arabera, Nafa-  
rroak, bere foru araubidearengatik, eskumen  
esklusiboa du Foru Komunitateko funtzionario  
publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatu-  
ko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitort-  
zen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeha-  
rrak errespetatuz.

Eskumen eskusibo hori egikaritzuz, akordioa  
lortu da erakunde sindikalekin Negoziazio Mahai  
Orokorrean, partzialki aldatzekoa urriaren 20ko  
11/1992 Foru Legea, Nafarroako Osasun Zerbi-  
tzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko  
erregimenari buruzkoa, honako zertzelada hauen  
bidez: egun berezietako lanagatiko osagarri bat  
sortzea, langile fakultatiboentzako produktibitate  
finkoko osagarri bat sortzea, eta lanpostuko osa-  
garri bat sortzea Oinarrizko Laguntzako Taldeeta-  
ko eta ospitalez kanpoko larrialdien zerbitzuetako  
administrazio-langileentzat. Kalte-ordain berri bat  
ezartzen da, lanpostu betegaitzetara lekualda-  
tzeagatikoa, bai eta ordainsari bat ere, prestakun-  
tzan dauden langile egoiliarren gaineko tutoretza  
egiten dutenentzat. Azkenik, presentzia fisikoko  
guardien eta guardia lokalizatuen prezioa  
eguneratzen da, eta destinoko osagarriaren indize  
berriak esleitzen zaizkie Oinarrizko Osasun  
Laguntzako Taldeen zuzendaritzan jarduten diren  
pertsonei.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Osasun Zerbi-  
tzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko  
erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru  
Legea aldatzea.

**Bat.** Aldatu egiten da 6. artikulua 3. aparta-  
tua. Honako testu hau izanen du:

“3. Ordainsari osagarriak dira:

- a) Destinoko osagarria.
- b) Berariazko osagarria.
- c) Ezohiko produktibitateagatiko osagarria.
- d) Kapitazio-osagarria.
- e) Gaueko lanagatiko osagarria.
- f) Jaiegunitako lanagatiko osagarria.
- i) Presentzia fisikoko guardiak edo guardia  
lokalizatuak egiteagatiko osagarria.
- h) Egun berezietan lan egiteagatiko osagarria.
- i) Langile fakultatiboen produktibitate finkoko  
osagarria.
- j) Lanpostuko osagarria, Oinarrizko Osasun  
Laguntzako administrazio-langileentzako”.

**Bj.** Aldatu egiten da 6. artikuluko 4. apartatua.  
Testu hau izanen du:

“4. Kalte-ordainak eta beste ordainsari berezi  
batzuk:

- a) Sakabanatze geografikoagatiko gehigarria.
- b) Famili laguntza.
- c) Konpentsatze-osagarria.
- d) Gastu-ordainak, honako arrazoiengatikoak:  
zerbitzu-arrazoiak, bidaiak egitea, egoitza-  
aldaketa dakarren nahitaezko lekualdaketa, edo  
lanpostu betegaitzetara lekualdatzea.
- e) Nafarroako Foru Komunitateko Administra-  
zioaren eta haren erakunde autonomoen zerbi-  
tzura dauden langileak hautatzeko epaimahaietan  
parte hartzeagatiko konpentsazioak.
- f) Irakasle aritzeagatiko edo prestakuntza-  
ikastaroak emateagatiko konpentsazioak.
- g) Aparteko orduak egiteagatiko konpen-  
tsazioa.
- h) Gizarte-ikerketako lineetan edo programetan  
parte hartzeagatiko konpentsazioa.
- i) Prestakuntzan dauden barne profesional  
egoiliarrekiko tutore-lanagatiko konpentsazioa”.

**Hiru.** 15. bis artikulua berria gehitzen da. Hau  
izanen da artikulua testua:

“15. bis artikulua.

1. Egun berezietako lanagatiko osagarria  
ordainduko zaie egun berezietan txanda arrunteta-  
ko lana egiten duten langile guztiei. Egun berezi-  
tzat jotzen dira urtarrilaren 1, 5 eta 6a eta aben-  
duaren 24, 25 eta 31.

Artikulu honen ondorioetarako, abenduaren 24  
eta 31 eta urtarrilaren 5a diren egun berezietan,  
aintzat hartuko dira hamalauetatik biharamuneko  
zortziak arte eginiko lan-txandak, bai eta txanda  
aldakorrak ere, zeinek goiz eta arratsalde, arra-  
tsalde eta gau, eta gau eta goiz tarteak barne har-  
tzen dituzten.

Abenduaren 25 eta urtarrilaren 1 eta 6 diren  
egun berezietan, aintzat hartuko dira goizeko zor-  
tzietatik hogeita biak arte eginiko lan-txandak, bai  
eta txanda aldakorrak ere, zeinek goiz eta arra-  
tsalde, arratsalde eta gau, eta gau eta goiz tarteak  
barne hartzen dituzten.

2. Aurreko apartatuak zehazten dituen txanden  
barreneko lanaldia duten langileek ordainsari bat  
jasoko dute egun bereziko txandan emandako  
lanordu bakoitzeko, nork bere mailaren arabera,

eta erregelamenduz ezarritako zenbatekoa izanen duena”.

Lau. 15. ter artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“15. ter artikulua.

1. Langile sanitarioek, baldin haien estamentu sanitarioak A.1, A.2.5.1etik A.2.5.6ra bitartekoak eta A.2.5.8 badira, produktibitate finkoko osagarria jasoko dute, hamalau ordainalditan banatuta, zeinetatik hamabi arruntak eta bi apartekoak izanen baitira.

Osagarri horrekin ordaintzen dira errendimendu berezia, jarduna, dedikazio arrunta eta lanpostuan jardutearekin zuzeneko zerikusia daukaten gainerako zertzeladak, bai eta lanpostu horri esleiturik baina 11. artikuluan aipatu gabe dauden emaitzen edo helburuen lorpena ere”.

Bost. 15. quater artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“15. quater artikulua.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeetako eta ospitalez kanpoko larraldien zerbitzuetako administrazio-langileek lanpostuko osagarria jasoko dute, nor bere mailaren ehuneko 10ekoa”.

Sei. 22. bis artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“22. bis artikulua.

Lanpostu betegaitzak betetzen dituzten Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeetako langileek joan-etorrietarako ordainsari bat jasoko dute.

Osasuneko kontseilariaren foru agindu bitartez zehaztuko dira lanpostu betegaitzak, ordainsari hori jasotzeko betekizunak eta horren zenbatekoa, zeina hilabeteroko kopuru finko bat izanen baita.

Hilabete osoa egiten ez bada, edo epe hori edozergatik eteten bada amaitu aurretik, ezarritako kopuruaren zati proportzionala ordainduko da”.

Zazpi. 26. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“26. bis artikulua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Irakaskuntza Batzordeak espezialitate bakoitzeko tutoretza-zereginetarako hautatzen dituen langileek ordainsari bat jasoko dute egoiliar-izaerako osasun-prestakuntza espezializatua ematearen truke.

Artikulu honi dagokionez, egoiliarren prestakuntzagatiko ordainsaria jasoko dute Irakaskuntza Batzordeak tutoretza-zereginetarako

hautatuak izan diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile izanik beren ardurapean egoiliar gisa gutxienez ere pertsona bat eduki dutenek.

Ordainsaria kopuru finko batek osatuko du, eta maiatzeko nominan ordainduko da, langile egoiliarren prestakuntza-urtealdiaren amaierarekin bat etorriz. Edozein arrazoi dela-eta tutoretza-aldia maiatza baino lehenago eteten baldin bada, ezarritako kuantitatearen parte proportzionala ordainduko da.

Ordainsariaren zenbatekoa zehazteko irizpidea izanen da zenbat egoiliar izan dituen bere ardurapean tutoreak: bat, bi, edo hiru edo gehiago”.

Zortzi. Bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzen da. Langile fakultatiboen produktibitate finkoko osagarria.

“Bederatzigarren xedapen gehigarria.

Langile fakultatiboen produktibitate finkoko osagarriarengatik jaso beharreko zenbatekoa hileroko laurhun eurokoa izanen da, hamalau ordainalditan banatua. Arruntak izanen dira horietako hamabi, eta apartekoak, bi.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen”.

Bederatzi. Hamargarren xedapen gehigarria gehitzen da. Egun berezietan lan egiteagatiko osagarria.

“Hamargarren xedapen gehigarria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 15. bis artikulua eta lege horren erregelamenduzko garapen-araudiak zehazten dituzten baldintzetan egun berezietan lan egiten duten langileek 22 euroko ordainsaria jasoko dute, egun bereziko txandan lanean emandako ordu bakoitzeko.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen”.

Hamar. Hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzen da. Barneko langile egoiliarren prestakuntzan tutore aritzeko hautatua izateagatiko ordainsaria.

“Hamaikagarren xedapen gehigarria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 26. bis artikulua zehazten dituen baldintzetan



tutoretza-zereginak bete ditzaten Irakaskuntza Batzordeak hautaturiko Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek ordainsari bat jasoko dute, beren ardurapean dituzten pertsona egoiliarren kopurua- ren arabera:

Ardurapeko egoiliar batengatik: 1.200 euro.

Ardurapeko bi egoiliarrengatik: 1.440 euro.

Ardurapeko hiru egoiliar edo gehiagorengatik: 1.680 euro.

Ordainsari hori halaber aplikatuko zaie barneko langile egoiliarren prestakuntzarako kreditatuta egonik Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikita dauden osasun-langileei, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikita ez dauden gainerako langileei ere.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajea”.

**Hamaiika.** Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen da. Lanpostu betegaitzak.

“Hamabigarren xedapen gehigarria.

Garapen-araudian zehazturiko baldintzetan lanpostu betegaitzak betetzen dituzten Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeetako langileek joan-

etorrien gastuetarako ordainsari bat jasoko dute, kasuko eskualdeko eskualde-burutik (Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako Osasun Barrutiak) beren lanposturaino dagoen distantziaren arabera, aintzat hartu gabe kasuko langilea non bizi den, eta honako kopuruetan finkatua:

– Egin beharreko distantzia 40 kilometrotik 59 kilometrora bitartekoa izanez gero: 75 euro hilean.

– Egin beharreko distantzia 60 kilometrotik 79 kilometrora bitartekoa izanez gero: 100 euro hilean.

– Egin beharreko distantzia 80 kilometrokoa edo gehiagokoa izanez gero: 150 euro hilean.

Ordainsari hori ez da aplikagarri izanen lanpostu betegaitz bat betetzen duen langilea Oinarrizko Barrutiaren barrenean biziz gero.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajea”.

**Hamabi.** Hamahirugarren xedapen gehigarria gehitzen da. Lanpostuan egin beharreko guardiaren prezioa eguneratzea.

“Hamahirugarren xedapen gehigarria.

Presentzia fisikoko guardiak edo guardia lokalizatuak egiten dituzten langileek honako ordainsariak jasoko dituzte, beren mailaren arabera:

GUARDIAREN PREZIOA				
	A maila	B maila	C maila	D eta E mailak
Presentzia fisikoa	30 29	18 18	14 53	11 61
Lokalizatua	15 16	9 086	7 24	5 81

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajea”.

**Xedapen indargabetzailea.** Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan eza-

rritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **10-23/PRO-00008. Foru lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua arabera, Foru Komunitate honek, bere foru araubidearengatik, eskumen eksklusiboa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Eskumen eksklusibo hori baliatuz, Negoziazio Mahai Orokorrean akordio bat lortu da sindikatuekin, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzeko, gai hauei dagokienez: graduaren erregulazioa, lanbide karrerari dagokion oinarritzko lansari pertsonal gisa, ez da aldi baterakoa izanen aurrerantzean, arauaren artikuluetan jasoko baita; gehitzen da igoera txanda murriztuan parte hartzeko aukera langilea borondatezko eszedentzian egonda ere, deialdia egin duen Administrazio beste lanpostu batean zerbitzuak egiten ari denean; lanpostua 18 hilabetez gordeko zaie Administrazio Publiko horretan nahiz beste batean zerbitzuak egiteko borondatezko eszedentzia hartzen duten funtzionarioei; langileen atxikipen esparruaren barruan barne mugikortasuneko prozesuak bi urtean behin egiteko aukera ezartzen da; bateragarriak izanen dira Administrazio Publiko desberdinetako lanaldi partzialeko bi kontratu edo gehiago, oro har ezarritako lanaldi osoa gaintzen ez bada; lanaldi partzialeko kontratuetan lanaldia murrizteko aukera ezartzen da, murrizketa egin ondoren egiazko lanaldia erregelamenduz onetsitako lanaldi tarteetako bat bada; lanpostuaren jabetza-hartzea geroratzeko kasuak arautzen dira, lizentziaren bat (erditzea, adopzioa, adoptatzeko edo harreran hartzeko zaintza, edo ama biologikoa ez den gurasoarentzako baimena) hartuta duten izangaiantzat, ukitutako langileek hala nahi badute erabil dezaten; antzinatatasunak

eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak jasotzen dira, beste Administrazio Publikoentzako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzeko ezarritako baldintza berberetan; eta lanaldia murrizteko gehieneko portzentajea %99,9ra handitzen da minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordaindua ematen denean.

**Artikulu bakarra.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

**Bat.** 13. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Aurreko artikulua aipatutako maila bakoitzak funtzionarioek aitortutako antzinatasunaren arabera lor ditzaketen adina gradu izanen ditu.

2. Lehen aldiz sartzan diren funtzionarioek dauden mailako 1. graduan sartuko dira, non ez dagokien goragoko gradua izatea, aitortua duten antzinatasunaren arabera.

3. Graduaren hasierako esleipena kasuan kasuko Administrazio Publikoak eginen du, bere langileei antzinatasunaren ondorioetarako aitortu dizkien zerbitzu urteak kontuan hartuta. Horren ondorioetarako, Nafarroako Administrazio Publiko guztietan, aitortutako zerbitzutzat hartuko dituzte Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an hartutako Erabakian horrelakotzat hartutakoak.

4. Emandako zerbitzuen denbora, antzinatasunaren ondorioetarako aitortutakoa, dago-kion gradua esleitzeko behar dena baino gehiago bada hasierako esleipenean, soberakoa hurrengo gradurako antzinatasun gisa kontatuko da”.

**Bj.** Aldatu egiten da 15. artikuluko 1. apartatua. Testu hau izanen du:

“15. artikulua.

1. Langileak mailaz igo ahal izateko, sartzeko hautapen prozesuetan lanpostu huts batzuk erreserbatuko dira Nafarroako edozein Administrazio Publikotako funtzionarioek txanda murriztuaren bidez betetzeko. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Deialdiko lanpostu hutsak baino maila apalagoak izatea.

b) Deialdian eskaturiko titulazioa izatea eta Administrazio Publikoetan bost urteko antzinatasun aitortua duela egiaztatzea.

c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea, salbu eta borondatezko eszedentzian

dagoen pertsona zerbitzuak egiten ari baldin bada deialdia egin duen Administrazio beste lanpostu finko edo aldi baterako batean.

d) Hautapen proba horiek gainditzea”.

**Hiru.** 16. artikulua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“16. artikulua.

1. Funtzionarioek graduz-gradu eginen dute gora, gradu bakoitzean 6 urte eta 7 hilabete egin ondotik”.

**Lau.** 17. artikulua kentzen da.

**Bost.** 26. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“1. Borondatezko eszedentzia deklaratzan ahalko da, funtzionarioek eskatuta, ondoko kasu hauetan:

a) Zerbitzuak egiten hasten bada beste Administrazio Publiko batean edo langilearena ez den beste Administrazio baten menpekoa den eta berezko nortasun juridikoa duen entitate batean; betetzen zuen lanpostua hemezortzi hilabetez gordetako zaio.

Puntu honetan xedatutakotik salbuetsita gelditzen dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak, baldin eta modu finkoan lan egiten badute Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen espezialitateen eranskinetako A.1 eta A.2 5 osasun estamentuetako batean. Langile horiek borondatezko eszedentziaren modalitate hori lortzen ahalko dute bakarrik zerbitzu finkoak ematen hasten badira beste Administrazio Publiko batean edo beste Administrazio baten menpekoa den eta nortasun juridiko propioa duen entitate batean, eta interesduna gutxienez bi urtez jardunean edo egoera parekatuan egon bada, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A.1 eta A.2 5 osasun estamentuetako batean lanpostu baten jabetza hartzen denetik kontatzen hasita.

b) Lanpostuaren jabetza hartzeko unean zerbitzuak egiten ari baldin bada beste Administrazio Publiko batean.

c) Administrazio Publiko beraren baitan, maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat, unitate organikoko burutza edo zuzendaritza direnak izan ezik, eskuratzen duen funtzionarioak bietako bat aukeratu beharko du, eta beste lanpostuan borondatezko eszedentzian deklaratzeko eskatzen ahalko du.

d) Horretan interesa duenak hala eskatu ondoren, funtzionarioa borondatezko eszedentzian dagoela deklaratu da Administrazio Publiko berean maila bereko edo desberdineko lanpostu bat aldi baterako betetzen hasten denean, eta ordura arte bete zuen lanpostua gordeko zaio hasierako hemezortzi hilabeteetan.

e) Funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzeko unean langilea betetzen ari bada Administrazio Publiko berean maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat aldi baterako, funtzionario lanpostuan borondatezko eszedentzian deklaraztea eskatzen ahalko du.

f) Alderdi politiko, sindikatu edo lanbide erakundeetan zuzendaritza karguak betetzeko, funtzio publikoan aritzearekin bateraezinak badira.

g) Funtzionarioaren interes partikularrengatik. Jatorrizko lanpostua hasierako hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bide ematen badute eta interesdunak egiaztatzen baldin badu eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo egoera parekatu batean aritu dela”.

Sei. 32. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

“32. bis artikulua.

Nafarroako Administrazio Publikoek barne mugikortasuneko prozesuak deitzen ahalko dituzte bi urtean behin beren zerbitzuan ari diren langileen atxikipen esparruaren barruan, erregelamenduz ematen diren xedapenei jarraikiz”.

Zazpi. 42. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“42. artikulua.

Graduari dagokion ordainsaria kasuan kasuko mailako hasierako soldataren ehuneko 9ko porzentaje metagarria izanen da.

1. graduagatik ez da ordainsaririk jasoko”.

Zortzi. Aldatu egiten da 57. artikuluko 3. apartatua. Testu hau izanen du:

“3. Estatutu honen aplikazio-eremuan dauden funtzionarioek ezin izanen dute soldata bat baino gehiago jaso Administrazio, Entitate edo Erakunde Publikoen, edo horien menpeko entitate eta enpresen aurrekontuen kargura, unibertsitateetan irakaskuntza lanak egitearen ondoriozkoak izan ezik.

Debeku hori ez zaie aplikatuko lanaldi partzialeko kontratua duten langileei, eta kontratu bat baino gehiago izaten ahalko dituzte Administrazio

Publiko desberdinetan, baldin eta gainditzen ez bada oro har ezarritako lanaldi osoa.

Ondorio horietarako, soldatatzat hartuko da aldizkako ordainsari oro, edozein izanik horien zenbatekoa eta izena”.

Bederatzi. Aldatu egiten da 59. artikularen 3. apartatua. Honako testu hau izanen du:

“Erregelamendu bidez zehaztuko dira funtzionarioei lanaldiaren murrizketa onartzeko kasu eta baldintzak; haien ordainsariak proportzioan murriztuko dira. Murrizketa aplikatu ondoren, egiazko lanaldia oro har ezarritako lanaldiaren murrizketa motak, erregelamenduz onetsi direnak, aplikatzean ezarri diren lanaldi tartetako bat izan beharko da.

Salbuespenez, genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioen ordainsariak osorik jasoko dira lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten dutenean”.

Hamar. Bigarren xedapen iragankorra kentzen da.

Hamaika. Laugarren xedapen iragankorra kentzen da.

Hamabi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Funtzionario izateko lanpostuaren jabetza hartzea edo langile lan-kontratudun finko izateko kontratua sinatzea geroratzen ahalko dute lizentziaren bat (erditzea, adopzioa, adoptatzeko edo harreraren hartzeko zaintza, edo ama biologikoa ez den gurasoarentzako baimena) hartuta duten izangaiek. Kasu bakoitzean, geroratzeak etenik gabe hartzen ari den aldia amaitu arte iraunen du.

2. Izangaiek geroratzea erabakitzen badu, lanpostuaren jabetza hartzeko edo kontratua sinatzeko epea zenbatzen hasiko da interesdunak erditze, adopzio edo adoptatzeko edo harreraren hartzeko zainzagatik duen lizentzia edo baimena etenik gabe hartzen ari den aldia amaitu eta gero, edo lehenago, baldin eta interesdunak hala eskatzen badu. Nolanahi ere, erditzearen ondoko nahitaezko atsedenaldira errespetatuko da.

3. Kasu horietan, dagokion Administrazioan emandako zerbitzu gisa aitortuko da lanpostuaren jabetza hartzeko edo kontratua sinatzeko gerorapenaren epe hori. Funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzeak edo langile lan-kontratudun finko gisa kontratua sinatzeak baldintzatuko dute aitorten hori, eta horiek gertatzen direnetik hasita izanen ditu ondorioak.

4. Aurreko apartatueta ezarritakoa aintzat hartuko da aldi baterako kontratazioak egiteko deialdietan, kontratazio horren berariazko ezaugarriek eragindako egokitzapenekin”.

**Hamahiru.** Hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzen da:

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Antzintasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek eskubidea izanen dute lau opor-egun gehigarri hauek izateko: lehena, hamabost urteko antzintasuna betetzean, eta gainerakoak hogeitau urtekoa, hogeita bost urtekoa eta hogeita hamar urtekoa betetzean, hurrenez hurren.

2. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek eskubidea izanen dute norberaren aferetarako baimen ordainduko bi egun gehigarri izateko hemezortzi urteko antzintasuna betetzean; horri beste egun bat gehituko zaio 24 urteko antzintasuna betetzean eta beste bat hortik aurrera betetzen diren hiru urteko.

3. Aurreko apartatuak aplikatuta ateratzen diren opor-egunak eta norberaren aferetarako baimen-egunak gehituko zaizkie jardunean emandako urte oso bakoitzean sortzen direnei. Zerbitzualdia txikiagoa denean, antzintasunak eragindako opor-egunen eta norberaren aferetarako baimen-egunen kopurua proportzioan dagozkionak izanen dira”.

**Hamalau.** Hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzen da.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Lanaldi murrizketaren gehieneko portzentajea aldatzea, minbizia edo bestelako gaixotasun larria duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordainduan.

Funtzionarioek eskubidea izanen dute lanaldia erdira murrizteko, ordainsarrietan murrizketarik izan gabe, minbizia edo bestelako gaixotasun larria duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko, baldin eta zuzeneko zainketa etengabe eta iraunkorra beharrezkoa badu gaixotasunaren tratamendu jarraituan zehar, aldeztu aurretik ospitaleratzeko beharra izanik nahiz izan gabe. Salbuespenez, lanaldiaren murrizketa ehuneko 99,99koa izan daiteke gehienez, modu egokian frogatzen bada hura beharrezkoa dela lizentziaren helburua betetzeko”.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Lanbide-karrera arautzeko arau-esparru baten proposamena.

2023ko urtean, eta langileen legezko ordezkariarekin batera, egun lanbide-karrera aitortuta ez duten langileen karrera arautzeko arau-esparru baten proposamen bati ekinen zaio, eta hura pixkanaka ezartzeari ere, behar besteko aurrekontu-zuzkidura dagoen heinean.

**Lehen xedapen iragankorra.** Funtzionarioentzako barne igoerako txanda murriztuan parte hartzeko baldintza berrien aplikazioa.

Barne igoerako txanda murriztuan parte hartzeko baldintzen arau berriak foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera argitaratzen diren deialdietan aplikatuko dira.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Antzintasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarrien aplikazioa 2023an.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan xedatutakoa galarazi gabe, 2023. urte osoan jardunean egonen diren langileek urte horretan hartzen ahalko dituzte antzintasunak eragindako opor-egun eta afera partikularretarako baimen-egun gehigarri guztiak, xedapen gehigarri horren lehen bi apartatuak aplikatuta dagozkienak.

**Xedapen indargabetzailea.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehena.** Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordainduaren gaineko arauak aldatzeko gaikuntza.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari ones ditzan, erregelamendu mailako arau baten bidez, minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordainduaren gaineko arauetan egiten diren aldaketak.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.





**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**10-23/MOC-00026. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako toki entitateak premiatzen dira Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioarekin lankidetzan aritu daitezen albait erremonte-festibal gehien antolatzeko orduan.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako toki entitateak premiatzen baitira Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioarekin lankidetzan aritu daitezen albait erremonte-festibal gehien antolatzeko orduan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioa irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da, Nafarroako Gobernuaren partaidetza duena. Proiektu global bat garatzen ari da, non prestakuntza, antolaketa eta gizarte-lankidetzaren bezalako arloak sartzen diren, erremontea Nafarroako Foru Komunitateko

bertako pilota-modalitate gisa gorde eta berrindartze aldera.

Jardueren artean, jaialdiak eta lehiaketak antolatzea da proiektua oinarritzen duten zutabeetako bat. Jaialdi eta lehiaketa horiei esker erremontea Nafarroako toki guztietara eraman daiteke, hura ezagutzen duten herrietan berreskuratzeko eta oraindik iritsi ez zaienean ezagutarazteko xedearekin. Gainera, era horretan prestakuntza sarea hedatzen da, herritarrek, gazteek bereziki, hura ezagutu eta aukera izan dezaten gure erkidegoko pilota klubetan abian jartzen ari diren erremonte atal eta eskoletara sartzeko.

Proiektuak duen beste alderdi aipagarri bat da gizarte-lankidetzaren arloa, zeina gauzatzen baita Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioa urtez urte hainbat elkarerekin -bereziki ADANorekin- garatzen ari den lankidetzan; helburua du gizarte entitateen eginkizun guztiz garrantzitsua ikusaraztea eta, aldi berean, funtsak biltzea elkarte horiek beren gizarte proiektuari jarraipena eman ahal izan diezaioten.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako erremontearerako sustapena eta konpromisoa berres-tetu, foru erkidegoan sortutako pilota-modalitate eta, ondorioz, gure luraren kirol ondarea baita, zeinak lan egite duen errespetua, adiskidetasuna eta ardura soziala bezalako balioetatik abiatuta.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako toki entitateak premiatzen ditu, fundazioarekin lankidetzan aritu daitezen albait erremonte-festibal

gehien antolatzeko orduan, Nafarroako toki guztietara heldu ahal izateko eta, hartara, bertan sortu zen pilota-modalitate hori iraunarazteko.

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentariak: Raquel Garbayo, Carlos Mena, Ana Ansa, Maiorga Ramírez eta Mikel Buil

---

## **10-22/MOC-00075. Mozioa. Horren bidez, Nafarroan banku publiko bat sortu beharra dagoela erabakitzen da.**

### *GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetu dadin Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroan banku publiko

bat sortu beharra dagoela erabakitzen baita. Mozioa 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-23/POR-00096. Galdera, ZIU pediatriko berria egungo legegintzaldia amaitu baino lehen funtzionamendu betean egoteko ekintzei eta egutegiari buruzkoa.***MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero aurkeztutako galdera, ZIU pediatriko berria egungo legegintzaldia amaitu baino lehen funtzionamendu betean egoteko ekintzei eta egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Iragan otsailaren 21ean, Nafarroako Gobernuko Arartekoak erantzun egin zion Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko pediatriako zainketa

intentsiboetako unitateko osasun-langileek 2023ko urtarrilaren 2an aurkeztutako kexari.

Unitate horren periploa eta egungo egoera prekarioa ikusita, Arartekoak Nafarroako Gobernuari gomendatzen dio aipatu ZIU pediatrikoaren egoera hobetu dezala, berma dezan gaixo adingabeek eta haien senideek arreta ahalik eta egokiena izatea. Horretarako, gomendatzen du ahalik eta lasterren behar diren zuzkidurak ezar daitezzen.

Iragan urtarrilaren 11n, unitate horretako osasun-langileen ordezkariak eta gaixoen senideek agerraldia egin zuten bilkura parlamentario batean. Eskatu zuten ZIU pediatriko berri bat eraiki dadila ama-haurren eraikinean, box indibidualak, familiendako gune bat eta argi naturala izanen dituen.

Legegintzaldiaren azken txanpan gaudenez, egungo gobernuak bere egin behar duen konpondu gabeko arazo bat da hau.

Zer ekintza eta egutegi ezarriko ditu Nafarroako Gobernuak ZIU pediatriko berria funtzionamendu betean egon dadin egungo legegintzaldia amaitu baino lehen?

Iruñean, 2023ko otsailaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## 10-23/POR-00097. Galdera, etxez etxeko laguntza zerbitzua zabaltzeko aurrekontu-esleipenaren garapenari buruzkoa.

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, etxez etxeko laguntza zerbitzua zabaltzeko aurrekontu-esleipenaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilari Carmen Maeztu andreak ostegunean, martxoaren 9ko Osoko Bilkuran, ahoz erantzun diezaion:

- Zein izan behar da etxez etxeko laguntza zerbitzua zabaltzeko aurrekontu-esleipenaren garapena moduaz eta denboraz bezainbatean?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## 10-23/POR-00098. Galdera, Nafarroako 5-CIAN zentroan ematen den arretaren kalitateari buruzkoa.

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako 5-CIAN zentroan ematen den arretaren kalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak ostegunean, 2023ko martxoaren 9ko kontrolerako Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak toki itunduak ditu 5-CIAN Talde-

an, desgaitasuna duten pertsonen egoitza-arreta emateko zentroan. Toki bakoitzaren itun-kostua hilean 4948,21 euro da.

Grupo 5 horrek Imarkoainen dagoen CIAN neuroerrehabilitazioko arreta integraleko zentroa erosi zuen, eta bertan arreta ematen zaie garune-ko kaltea pairatu duten pertsonen. Eskubide Sozialetako Departamentuak —kasu honetan, baina baita beste batzuetan ere— inbertsio-funtzen enpresa batekin ituntzen ditu tokiak, zeinak ez baititu ere zergak Nafarroan ordaintzen.

Bestalde, kezkatu egiten gaituzte zentro horietako erabiltzaileek eta haien senideek erosotasunari eta gaixoen arretari buruz egindako kekek.

Eskubide Sozialetako Departamentuak inguruabar horien berri al du, bereziki desgaitasuna duten pertsonen egoitza-arreta emateko "Grupo 5-CIAN Nafarroa" zentroko erabiltzaileei ematen zaien arretaren baldintza prekarioen berri? Horri dagokionez, zer neurri abiarazi behar ditu?

Iruñean, 2023ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **10-23/POR-00099. Galdera, jakiteko nola eraginen dien tipoen etengabeko igoerak Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko zorrari eta interesei.**

### *MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola eraginen dien tipoen etengabeko igoerak Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko zorrari eta interesei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko

kontseilariak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Hileroko euriborrak igotzen jarraitzen du; 2022ko abenduan ehuneko 3,018 zen, eta 2023ko urtarrilean, aldiz, ehuneko 3,337, ia ehuneko 0,32 handiagoa; eta otsailean are gehiago igo zen, ehuneko 3,534raino.

Horrez gain, eguneroko azken euriborrak, martxoaren 1ekoak, erakusten digu indize hori oraindik ere igotzen ari dela: ehuneko 3,745 da.

Bitartean, zenbait hilabetetan jaitsi ondoren, KPIa ere igo da bigarren aldiz jarraian; hori horrela, aurreikus daiteke interes-tasen igoerak jarraituko duela harik eta inflazioak beherakada handiagoa izan arte.

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da:

Nola eragingo die interes-tasen etengabeko igoerak Nafarroako Gobernuak ordaindu beharreko zorrari eta interesei?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **10-23/POR-00100. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak aurreikusita al du ezarritako denbora-epean betetzea pobrezia energetikoari dago-kionez Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko Foru Legeak egitera behartzen duen erregelamenduzko garapena?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **10-23/POR-00101. Galdera, Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordeak egindako lanei buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako batzordeak egindako lanei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, eskatzen du Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko galdera honako hau izan dadila:

Eliza Katolikoaren barnean osotasun fisikoaren, ukigabetasunaren eta sexu-askatasunaren aurkako erasoen biktimen errekonozimendurako berriki eratutako batzordearen lanei dagokienez, zein da gaur egungo egoera?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García



## **10-23/POR-00102. Galdera, Foru Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileek galdutako erosahalmena berreskuratzeari buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Foru Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileek galdutako erosahalmena berreskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, lehen lehendakariorde eta Lehendakariorde, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako zerbitzu publikoetako langileen ordezkarietako negoziatio-prozesuan oraindik ere zenbait gatazka daude. Langileen eskarien artean daude lanbide karrera ezartzea gainerako langile ez fakultatiboek edo erizainek, mahai orokorraren dokumentuan eta 2023ko aurrekontu-akordioan jasotzen den bezala. Lanbide karrera izan daiteke inflazio altuaren ondorioz balioa galdu duten soldaten erosahalmenearen galera zuzentzea ahalbidetuko lukeen kudeaketa-tresnetako bat.

Hori dela-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zer ibilbide-orri edo planifikazio aurreikusita du Nafarroako Gobernuak arian-arian berreskuratzeko aldera Foru Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileek galdutako erosahalmena?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **10-23/POR-00103. Galdera, PSNk 2021eko urtarrilean prostituzioaren abolizioari buruz aurkeztutako mozioari eta “Mediador” kasuan salatu-tutako jarduketei buruzkoa.**

*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea PSNk 2021eko urtarrilean prostituzioaren abolizioari buruz aurkeztutako mozioari eta “Mediador” kasuan salatu-tako

jarduketei aurkeztutako galdera, Isabel Olave Ballarena andreak buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

“Mediador kasuan” salatutako jarduketa guztiak kontuan hartuta, zer iritzi du lehendakariak prostituzioaren abolizioaren inguruan PSNk 2021eko urtarrilean aurkeztutako mozioaz?

Nafarroan, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

---

**10-23/POR-00104. Galdera, Espainiako Gobernuak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara joaten diren enpresak seinalatzeari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara joaten diren enpresak seinalatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Lehendakariak bat egiten al du Espainiako Gobernuak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetara lekualdatzea erabakitzen duten enpresak seinalatzearekin?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **10-23/POR-00105. Galdera, umetoki-lepoaren minbiziaren antzemate goiztiarrerako programa ezartzeari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, umetoki-lepoaren minbiziaren antzemate goiztiarrerako programa ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Umetoki-lepoaren minbiziaren antzemate goiztiarrerako programaren ezarpenari dagokionez, zer balorazio egiten du lehendakariak?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **10-23/POR-00106. Galdera, Espainiako Gobernuaren gaikuntzaren beharri buruzkoa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien egungo erregelamendu-proposamena onesteak dakarren langile-gastuen igoera ordaindu ahal izateko.**

*JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuaren gaikuntzaren beharri buruzkoa, Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien egungo erregelamendu-proposamena onesteak dakarren langile-gastuen igoera ordaindu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehen lehendakariorde eta Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuaren gaikuntza berezia beharrezkoa al da onetsiko den Foruzaingoaren jardunaldi, ordutegi eta ordainsarien egungo erregelamendu-zirriborroak eragingo duen langile-gastuen igoera ordaindu ahal izateko?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

## **10-23/POR-00107. Galdera, Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren norainokoa zehazteko herritarren parte-hartze prozesuari buruzkoa.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren norainokoa zehazteko herritarren parte-hartze prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2022an, Nafarroako Gobernuak herritarren parte hartzeko prozesu bat abiatu zuen Etxabakoizko Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aldaketaren norainokoa zehazteko.

Zer balorazio egiten du zure Departamentuak prozesu hori eta aldaketaren eduki materiala justifikatzen duten arrazoiez?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **10-23/POR-00108. Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak “Bai soilik da bai” legea dela-eta duela gutxi eginiko adierazpenei buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak “Bai soilik da bai” legea dela-eta duela gutxi eginiko adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariordeak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Duela gutxi, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak hauxe adierazi zuen ‘Bai soilik da bai’ legeari dagokionez: “kondena batzuk murrizten ari dira, baina Nafarroan oso minoritarioak dira”. Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren ustez, zein izanen litzateke kondena-murrizketen kopuru nahikoa oso minoritarioak izateari uzteko?

Iruñean, 2022ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **10-23/POR-00109. Galdera, legegintzaldi honetan gauzatutako finantzaketa jasangarrirako estrategia dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, legegintzaldi honetan gauzatutako finantzaketa jasangarrirako estrategia dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan gauzatutako finantzaketa jasangarrirako strategiari buruz?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

## **10-23/POR-00110. Galdera, Nafarroan berrikuntzako lehenengo erosketak publikoak ezartzeari begira eginiko lanari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan berrikuntzako lehenengo erosketak publikoak ezartzeari begira eginiko lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko astean aurkeztu zen lehendabiziko merkatu-aurrekontsulta berrikuntzako erosketak publikoaren prozesuaren barruan.

Zer lan egin du zure departamentuak Nafarroan lehenengo berrikuntzako erosketak publikoak ezartzeari begira?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **10-23/POR-00111. Galdera, Artesiaga aldean, Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeari buruzkoa.**

*ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, Artesiaga aldean, Magnesitas Navarraren ustiapen proiektua foru erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak

menduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

PSNk mozio bat sustatu zuen Artesiaga aldean (Esteribar-Baztan) magnesita ustiatzeko proiektua foru intereseko inbertsio deklaratu izan dadin.

Eztabaidatu ondoren, mozia onetsi egin zen aldeko 40 botorekin (NA+, PSN-PSOE eta Geroa Bai) eta aurkako 10 botorekin (Bildu, Podemos eta IE).

Zure aurreikuspenen arabera, noiz deklaratuko duzu foru intereseko inbertsio Artesiaga aldean (Esteribar-Baztan) magnesita ustiatzeko proiektua, horrela betetze aldera 2022ko urriaren 6an onetsitako mozio parlamentarioa?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

## **10-23/POR-00112. Galdera, asialdirako gunetan sexu-erasoei aurrea hartzeko eta halako egoerak kudeatzeko protokolo bat onesteari buruzkoa.**

*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, asialdirako gunetan sexu-erasoei aurrea hartzeko eta halako egoerak kudeatzeko protokolo bat onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Asialdirako gunetan sexu-erasoei aurrea hartzeko eta halako egoerak kudeatzeko protokolo bat oneste aldera, zer ekintza abian jarri ditu Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2023ko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos



## **10-23/POR-00113. Galdera, zainketak politika publikoen erdigunean paratzeko beharrari eta mugimendu feministaren erreibindikazioei buruzkoa.**

*LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, zainketak politika publikoen erdigunean paratzeko beharrari eta mugimendu feministaren erreibindikazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Martxoaren 8ko erreibindikazioen kariatara, mugimendu feministak berriz exijitu du pertsona guztiek zaintzeko eta zainduak izateko duten eskubide indibidual nahiz kolektiboa. Hori horrela izan dadin, beharrezkoa da politika publikoak aldatzea eta zainketak erdigunean paratzea.

Zure ustez, zer ardura hartu behar dute bere gain erakunde publikoek zainketak erdigunean paratzeko? Zer urrats egingen duzu mugimendu feministaren erreibindikazioak aintzat hartuta?

Iruñean, 2023ko martxoaren 7an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## **10-23/POR-00114. Galdera, legegintzaldia bukatzeaz dela, jakiteko zer balantze egiten den foru gobernuaren eta gobernu zentralaren arteko harremanati buruz.**

*UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, legegintzaldia bukatzeaz dela, jakiteko zer balantze egiten den foru gobernuaren eta gobernu zentralaren arteko harremanati buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den martxoaren 9ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldia bukatzeaz dela, zer balantze egiten duzu foru gobernuaren eta gobernu zentralaren arteko harremana dela-eta?

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

## **10-23/POR-00115. Galdera, hipoteken prezioaren igoera orokortuaren ondorioz etxegabetzeen kopuruaren balizko handitzeari aurre egiteko hartuko diren neurriei buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, hipoteken prezioaren igoera orokortuaren ondorioz etxegabetzeen kopuruaren balizko handitzeari aurre egiteko hartuko diren neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hipoteken prezioaren igoera orokortuaren ondorioz etxegabetze-arriskuan egon litezkeen nafarrak babesteko zer neurri hartu du Administrazioak?

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **10-23/POR-00116. Galdera, Nafarroara iritsi diren Europako funtsei eta horiek betetzeko erritmoari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroara iritsi diren Europako funtsei eta horiek betetzeko erritmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak datorren ostegunean, 2023ko martxoaren 9an, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Nafarroara iritsi diren Europako funtsei buruz eta horiek betetzeko erritmoari buruz?

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **10-23/POR-00117. Galdera, foru erkidegoko nahiz Espainiako gainontzeko erkidegoetako eskuina Nafarroaz egiten ari den erabilera politikoari buruzkoa.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, foru erkidegoko nahiz Espainiako gainontzeko erkidegoetako eskuina Nafarroaz egiten ari den erabilera politikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2023ko martxoaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nola ulertzen duzu foru erkidegoko nahiz Espainiako gainontzeko erkidegoetako eskuina Nafarroaz egiten ari den erabilera politikoa?

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **10-23/POR-00088. Galdera, etxebizitza babestuko sustapen geldiarazi edo atzeratuei buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak erretiratu duela etxebizitza babestuko sustapen geldiarazi edo atzeratuei buruz aurkezturiko galdera,

zeina 2023ko otsailaren 21eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**10-21/PON-00003. Ponentzia, Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adostearren.**

*PONENTZIAREN LANAK BUKATZEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako kultur jarduera duintzeko, egonkortzeko, areagotzeko eta haren etorkizuna bermatzeko neurriak zehaztu eta adosteko ponentziaren lehendakariaren idatzia, zeinean jakinarazten baitu ponentziak ezin izanen dituela bere lanak aurreikusitako epean bukatu eta dagokion txostena burutzeko epea luzatzea eskatzen baitu,

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Ponentziaren lanak bukatzeko epea 2023ko martxoaren 27ra arte luzatzea.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias







